

Inaitasuna

V URTEA - N.º 45

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Zezeilla (2) 1958

Aita Santuak diñosku ze:

Urtero-urtero, Gabon inguruan, berbaldi ospatsu bat egin daroa radioz Aita Santuak. Berbaldi orretan gogoan eukiten ditu mundu zabaleko giza-seme ta gizalaba guztiak, kristiñauak eta kristiñau ezteireanak be bai. Guztion Aita dalez, dantoztat zabalduen ditu beren erakutsi mamitsuak. Gaurko gizadiak daukozan zauriak eta gatzak, eta zauri orreek osatuteko osagarria, urtean baiño urtean biziroago ta ozenago adierazoten yatorku Pio Amabigarrena.

Aurten be egin euskun Gabonetako berbaldi ori. Luze, sakon, zoragarri. Beronen mamin gutia ezin lei emen lerio gitxitan sartu. Baiña idea buru eta nagusi batzuk beiñepein gomutau ta ikutu gura geunkez.

Gaurko gizona —diño Aita Santuak— arro dago beren asmaketa arrigarriak direala-ta. Izan be, zer eztau asmau gizonak gure egunotan? Ze aurrerapenak ez gabiz ikusten, egunean baiño egunean andiangoak? Eta guztiok izan dira materia menperatuteko, izadi itsuarèn indarrak gizonaren eskuetan ipinteko. Ori eztago txarto, ez. Baiña zer jazo da? Teknikea jarri yakula jaun eta jaube. Beronen agintepean gazog. Makiñak eta burdiñezko tresnak ugari eta franko sortu dira, baiña espirituari yagokon jakiturian, aurre-ra barik, atzera ez ete goazen bildurrez dago Aita Santua: Orregatik diño berak, homo faber = gizon arotzak (materiazko esku-lanetan diñar-duenak) baztertu ta ito egin dabela bestea, homo sapiens, au da, espirituaren jakituriaz jantzirik egon bear leukiena. Goi-maillako balorea alde batera itzi dogu, eta azpikoa goian ipiñi.

Izan be zulorik andiena ortxe dauko gaurko gizonak. Gauzen azalari eta ez mamiñari begiratu-en deuto. Ardurabagekeria, olgetea, nasai bizi gura izatea, seriotasunik eza, orreek dira gure denporako gatzak. Sentiduei larregi emoten yako, espirituari, barriz, gitxi edo bapez. Gaurko gizona kasik ezta gauza bizitzarene giarra ta sustantzia direan egia andiak ausnartu eta eioteko. Ain dago oitua axalari bakarrik jaramon egi-tenl..

“Sabelak emoten deutsu ardura geiagi, arima-ko gauzak baiño”: alan diñotso Peruk Maisu Jua-

neri. Eta beste ainbeste esan leikion gaurko gizonari be. Izan be Peru Abarka-ko Maisu Juan ori dogu gure denpora onen irudirik zeatzena. Jaungoikoa barik, Jaun-beekoa maite dau gaurko gizonak. Au adoretan dau, oneri bakarrik deutsa lotsa ta begirunea.

Landare bat, dala garia edo garagarra naiz oloa edo beste edozein ortubedarra, bear dan modukoa izan dañten, gauza asko bear dira: eguzkia, aizea, euria, otz-bero egokiak, ta lurra be ez edozeingo, landareak bear dituzan elemento guztiak daukazana baiño, Bestela, elemento bearre-koren bat falta bayako, erneko da bearbada, baiña erkin, ziztrin eta gauza ezdana urtengo deusku. Eta gizonagaz be orixe jazoten da. Gorputza-ren legeak gordetzen badira, eta arimearenak ez, giza-landarea ezdator bear dan modukoa. Makal, zimel ta beren egiazko itxurea galduta aziko da.

Baiña Jaungoikoak ba-daki gure gatxen barri. Eta nundik egin dogun pekatu, eta andixik bialduten deusku bai zigorra eta bai zuzenbidea be. Beren progresu materialaz arro egoan eta dago gizona. Lilluratuta, mozkortuta letxe. Baiña gizonaren asmaketak ain biurtu dira ikaragarriak, ze orain bildurretan dago progresu ori ez ete dan gizonaren beraren kontra biurtuko. Bomba atomikea eta iretargi guzurrezkoak (satelite artifizialak) or dagoz gure buruen ganean dingilizka, biotz danetan bilqurra ipinten. Gizonak asmautako tresnok ez ete dabe azkenean gizona bera zapalduko eta azpian artuko? A, gizona okertuten danean, onen Egille andiak ba-ditu bai milla bide, zentzau eragiteko! Eta orretarako eztauko ezter sortu bearrrik. Gizonaren ibillerak eta asmaketak eurak dira naiko zuzentzaille ta iratzarle.

Edozelan be —eta au da Aita Santuak erakutsi gura deuskana— burdiñezko tresnak ezin dabe gizona bete ta zoriondu egin. Jaungoikoak beren irudi-antzera egin eban gizona. Espirituzko arimeu dogu gure atalik bikaiñena. Eta arima ori goi-bizitzaz bakar-bakarrik ase ta bete dai-teke.

L. Villasante

SANTA AGEDA KANTAK



Bedeinkatua izan dedilla

etxe onetako gentia...

Urtearo urtearo, Zezeillaren 4'garren arratsean, gure erri ta baserrietan «Santa Agedak» abestuten dira. Ori nok eztaki?

Baña nire gaurko asmoa ezta oitura ezagun eta eder onen barri emotea, ez. Gainera, orain Bizkai erdian, Bilbo barruan dala, abestuten diran «Santa Ageda Kantak» nik eztakit nundik eta norakoak direan. Emengoak eztira beintzat. Ez letrarik, ez musikarik dauke gure umearo ta gaztearokoen antzekorik; areen gatzik eta bixitasunik-bere ez. Oraingoak *lo-loren* antza geiago dauke.

Baña goazen geure arira.

Geienetan Donearen edesti latsa ta oiñazekorra gogoratuten da lenengo, eta gero *koplak* deritxoen beste letraxu batzuk sartzen dira, nun zein atara bear dan ondo begiratuaz.

Emen idazten noiazanak, orain urte asko, neure erri ta bere inguruan neuk bilduak dira, eta, batzuk beintzat, ondo polit eta egokiak.

Etxeko nagusiari zuzendu bear yakozanak:

*Usua doa otara,
nire begiak lotara;
oraintxe noa, nagusi jauna,
bedorren koplaetara.*

*Odei artian izarra,
erreka munen leizarra,
etxe onetako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.*

*Eder soloan goldie,
soñean kapa modie;
etxe onetako nagusi jauna
ondo gizontxu noblie.*

*Urre gorritzko bizarra eta
urre zurizko samia,
errialbikoz eginda dauko
eleizarako bidia.*

Etxeko andrearentzat orain:

*Etxe onetako andra zabala
Leku oneko alaba,
bidian esaten etorri gara
lemosnera ona zarala.*

*Etxe onetako Mariye,
Orain esango'tsut egieye;
ainbat lasterren topau egizu
oillo pintoen abiye.*

*Okaran txiki gorri betie,
aurten da zure urtie;
errialtxu bi emon ezkeru
urte guztiko bakie.*

Baña geienak eta samurrenak etxietako neskaillari zuzenduak izaten dira:

*Errotapien arriye,
aren ganién txoriye;
erastun baten sartu leiteke,
Maritxu, zure garriye.*

*Erastuntxua letonez,
begiak urre kolorez;
etxe onetako alabatxua
edozeinentzat egon ez!*

*Zure ortuan madari,
adarrak dituz amabi;
Etxe onetako alabatxuak
baba loria dirudi.*

*Etxe onetako ugazabak;
ederrak ditu alabak;
goizean goiztik jagi bearko
arek gura dituzanak.*

Eta azkenez kantetan dira eskabidea zuzen zuzen daroienak:

*Solomuaren luzia!
Aren koipien gozua!
Zatirik kentzen ibilli barik
emon eiguzu osua.*


*Amaseikua bai dala zabal,
Larogei peseta ditu.
Guri pare bat emonagaitik
irurogetaz gelditu.*

Eta oindokerren emokuna agertzen ezpada, auxe:

*Emongo bozu, emoizu;
baldin emongo badozu!
Zuri begira emen egonda
egiten yaku berandu.*

Eta naikua da, Ezta?

BELU (Gernika).



4'garren orritik dator

PROZESINOAK.—Basilika-aurreko zabate-
ra onetan egiten dira prozesiñoak. Arratsal-
dez izaten da bat, Jauna agirian doala.
Onen amaikeran, plaza-alboetan dagozan
gaixoeri emoten yake Jaunagaz bedeinka-
ziñoa, erria Kristori eskarrietan dagoan ar-
tean: «Jauna, erruki zakiguz. Jauna, nafi
ba-do zu, osatu nagikezu». An ikusi ikusten
da fedearen dirdira gaixo-begietan, itxaro-
penaren gura-izana arpegietan. Momentu az-
tu-cziña! Kandela-prozesiñoa illuntzean egi-
ten da. Millaka erromesak, bosna edo sei-
na, erreskada luzean, otoi eta kantu, kande-
lak eskuetan biztuta darozala. Bakotxak
bere izkuntzan «Ave... ave...» esaten illun-
tzeko ixillean. Kantuaren oyartzunak biotz-
-barrena dardaratu egiten dau. Gabeko illu-

nean kandela-argiak dizdizka, berrotan; za-
balera guztian. Azkenean, Salbe bat kan-
tetan da, ta Kardenalen batek edo an diran
Obispoak emoten dabe bedeinkaziñoa.


UR-TOKIA.—Koba'ren ondoan dago Ama
Birjiñak sortu-eragiñiko uraren tokia. Ur
onetara egunero eroaten dira osasun-billa
cunka gaixoak. Eta iñoiz-sarritan-andik ur-
ten dabe osaturik gaixoak. Zein izaten dan
biotzeko dardarea alako bat jazotean!

KURTZE-BIDEA.—Ederra da benetan.
Irudiak, gure neurrikoak. Bidea, barritz,
latza ta arriz beterikoa. Erromes askok ibil-
tzen dabe bide santu au penitentziketan.

Au da LOURDES'KO Amak autaturiko le-
ku bedeinkatua, aurtan dirala eun urte ele-
jidu be.

AIXANGIZ

MUNDUAN ZEAR



Lourdes'eraiko asmotan bazagoz...

(S. Antonio-errebistatik)

Aurten, 1958'garren urte onetan, egiten dira eun urte Ama Birjiña Santa Bernadetta'ri Lourdes'en agertu izan yakola! Ta Andra Mariaren aintza ta omenerako jai aundiak gertuten dabiz. Mundu guztiko alderdietatik etortzeko dira ainbat peregrinaziño: orainarte jakiñak ta gerturik dagozanak mille inguru dira. Ta orrela, Lourdes erri koxkor bat izana, orain mundu zabaLEAN ezagutua da. Ta zein biotz-ikutugarririk bertan egiten diran eleizkizun ederrak! Ta ze leku zoragarria, gure zeruko Amak auturiko au! Zelan bere Amatasun gozoa sentitzen dan bertan! Bake santuz, biotz-samurtasunez inguraturik geratzen da bat, bertan dagola: ain da gozoa Andra Mariaren urreratasuna usmetan dan leku bedeinkatu au! Bere iru Basilika eder, bata bestearen ganean; lurpean egin dan Basilika barria; Ama Birjiñak sortu-eragin zituan ur osagarrien tokiak; kurtze-bide gomutagarria; Kristo Sakramentuaren prozesiño gogoragarria; ta Kristo beragaz gaixoen bedeinkaziño ixillaren ederra; eta azkenez illuntzeko argi prozesiño goragarria, guztiak Andra Mariari «Agur»ka doazela. Oneik biotza betetzen dabce, ta dardara bigunean jarri.

KOBA SANTUA.—Baiña benetau biotza ikututen dau gozoro Lourdes'ko atx-zulo arek. Ementxe agertu zan Andra Maria: bertan jarri eban bere oiñ santua: bertatik egin eutsan penitentzirako dei zabala munduari. Orain, Koba onen barrenean, altara bat dago mezak esateko. Eta atxaren alboko zulo batean, bost metro goi, Andra Mariaren irudi bat. Irudi onen beko aldean, letrero bat: «Ni naz Sortze Garbia». Aibetan, kandelak, aundi ta txiki, beti biztuta. Euren keiak balztitu dau atx-azpia. Emen, toki santu onetan,... ixillia eta otoitza. Jentetza, joan-etorri luze ta bizian, arimea zeruko gauzetan pentsetan, barru guztia Amari erreguka, ezpanetau Errosario Santuko otoitza esaten.

BASILIKAK.—Lenengoa, Koba santurako bidean aurkitzen da, ondiño amaitu-bakoa. Lurpean dago, ta bertan sartu leitekez 30.000 persona. Aurrerago, Kobako atxan bertan, beste iru Basilika, alkarran ganean, eurretarako eskillara ikusgarriak dituzala. Barruko orinetan, Ama Birjiñari marmoletan idatziriko esker-agiriak. Basiliken aurrez-aurre zabalera eder bat dago, 100.000 lagun artu leikezala.

3'garren orriara

Sermolari, gitarra jotzaille,

mixiñolari, bertsolari

Frantziako errietan agertu da bertsolari bat, gitarra bat eskuetan daroala: Aita Duval, Jesuita. Gaztea bera, or dabil erririk erri biotzetik Kristoren sua, ezpanetarik kantuaren ezti gozoa dariola.

Bein baten pentsamentu bat sartu yakon buruan: Gaurko munduari gustetan yakozan musika soñu barrietan zegaitik atara ez nik bertso polit batzuk Jaungoikoagana arimak eroateko?

Eta paper bat artuta, idazten asi zan: **Zure bizi-leku ederraren ondoan...**

Uste dot —diño A. Duvalék— berba onexeri begira egingo neukala koplá barri bat. Ia:

- I. Jauna, ene adizkide kutun!
Zure eskutik zeuk naukozu.
Ezer galdu barik Zugaz
Bide-goira elduko naiz.
- II. Zugaz, naiz aize artean,
Naiz otz gogorra danean...
Bardin niri biotzean
Zaitudala jakitean!
- III. Nun nai vantza ta irribarre,
Edonun atsegin gose,
Baiña ni banator billa
Zure arpegiaren dirdira.
- IV. Bertso kantari nator arin:
Zain zaitudala badakit,
Zu, bai, bizi-leku aurrez,
Ate ondoan biotzez.
- V. Ortze zagoz! Atea idigi
Ta ikusten dot zure arpegi,
Ta zure etxeke mai zuri,
Ta mai ganean plater bi.

Auxe izan zan A. Duvalen Jenengo kantua. Orain Frantzia guztian zabaldu da bere izena, eta an dabil erri batetik bestera. Erri batera eltzen danean dei egiten deutso genteari ziñe tokira, euren artean jazarri ta gitarrea eskuetan artu ta kantuan asten da. Jentea agoa zabalik entzuten, eta azkenik txaloka amaituten da ekitaldia. Momentu au uste izaten dau egokiena arimen ardurea artzeko. Orduantxe egiten dau berbaldi laburtxu bat Jaungoikoaganako maitasunari edo fedeari edo itxaropenari edo Jaungoikoari berari yagokona. Bere berbak, zeruko garo biguna bai-

liran, bustiten dituez graziaz euren arimak. Alañ egiten dau jesuita gazte onék bere apostolutzako lana.

Iñoiz beste modu batera bere bai: Erriko kafetegian gizon illun, arpegi baltz, azal gogor, eleizatik urrun, abadeen kontra dabiltzanen artean egiten dau bere kantu aldia. Orduan ez dau sermorik egiten. Entzun eidakuez, mesedez, —esaten deutse— neure amaren izenean eginiko bertsuak. Titulua: **Jauna etorriko da. Neure amari, bere bizitza guztian pobre izanari, beste Zeruren itxaropenik. Jesus. arexena ezpada, eztaukan ama koitaduari. Kafetegiko mai baten kontra besoa ta lepo erdia bota, ta asten da bertsuetan, gitarrera lagun. Lan fiña, samurra, biotzean ikututekoa. Ogei, ogetamar gizon daukoz belarriak zur, eta azkenerako danak asten yakoz txaloka.** Orduan asten dau eureka ariemearen edo Jaungoikoaren ganeko diskusiñoa. Geienetan langillez eta obreruz beterik egoten da lekua, ta eurentzako izaten da mixiñolari onen barri ona: **Jauna, zeuk leporatu deustazu pobretasun karga aztuna, baina oindiño geuk aldatuko dogu mundua...**

Frantziako errietan eta Frantzitik kampa zabaldu da jesuita onen izena. Eta ez uste izan erri txikietan bakarrik, andietan be emon ditu bere konziertuak. Pui, Dijon, Bourges, Toulouse, Paris... Suiza, Belgika ta Luxemburgen.

Orain arte ikusi ez dan modu onetan doa gizon umil eta biotz oneko au Kristoren barriona gaurko munduari estaten. Motorrean ibiltzen da bate-tik bestera, gitarrea lepoan daroala, Jainkoaren bertsolari au, Kristoren birigarro nekatu ezin-au.

A ze apostolutzá ederra!

ARIZPE

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en Vizcaño)

Aita Imanol Berriatuak egiña


Bigarren ediziñoa

Foilletu bakotxa: 3 peseta — Ogeitik gora 2,50

SALGAI:

Librería Verdes, Correo, 7, Bilbao

PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya



1) «Gallardo» ardao-zale

Badakizu, irakurle, nor dan «Gallardo»? Ez dozu jakingo, bear bada. Ez ba: eziñan iñoiz egon izango Ombreira deritxon Lugo'ko erritxoan-da.

Baña ez dozu ba' entzute gitxikoa morrosko au! Nor eta asto bat dozu «Gallardo». Bai asto bat. Baña apartekoa, antza.

Urik be ez cukan-da, ardo-txurrut bat emon entson jaubeak egarri izan zau baten. Eta bai gozo edan be astoak ardoa.

Baña begira zer jazo zan urrengo egunean. Apareju ta guzti bearrerako prest ipiñi eban jaubeak «Gallardo». Baña «Gallardo'k» zirkiñik be ez. Ze arraio ete cukan gero astoak? A, bai: egarri izango zan. Eta jaubeak emon cutson ba ur presko-preskoa. Baña bai zera edan urik astoak! Gorantziak artu egizak. Ardautxua nai izan eban; ardautxu gorria...

Eta atrezkero ez ei dau bearrrik egiten bakoitxeko bost-sei txurrut onak egin ezik.

Baten bateri «Gallardo»-vokaziñoa etorteko be!

2) Bizitza luzeagoa

Orain gizaldi batzuk baño geiago bizi dira gaur egun gizonak. 1900 urtean 49 urte ziran, apur bat gora-bera, geienen edade neurria. 1958 urtean, ostera, 70 urte. 1900' garren urtean, milletik amazspi persona il oi ziran jaio ta urtean bertan. Gaur, ostera, bederatzi besterik ez.

Umien eriotzak guztiz gitxitu izan dira. Gizaldi onen asieran, miñleko eun da irurogei il oi ziran jaio urtean barruan. Gaur eztira berrogeitik gora be urte batoko

eguzkia ikusi barik ilten diranak. Kukurruku-etzulak zaspi milla ume eroaten ebazan beste mundura gizaldi onen asieran. Gaur konta egizuz irureun, eta naikoa dozu.

Aurrerapen aundiak egin izan ditu urteotan gaixo-klase guztietako medikamentuak. Gaixo-klase bat ezin galerazo.

Au txarra! ERIOTZA.

3) Agiñeko-miña

Ez, dozu iñoiz cuki izan dentistearengana joan bearra?

Zorionekoa zeu olan bada. Zorionekoa arrazoi onegaitik: ez deutzazulako miñik emon ez zeure karteriari ezta zeure buruari be.

Kartera-miñak nondik etorri leikezan jakingo dozu, nik uste. Lar be! Baña agiñeko-miñen iturria dan karies ori, ete dakizu gero nondik datorren?

Jakintsu bik esan dabe oraintsu baleikela karies ori sortzea janari edo edari otzak eta beroak bata bestien jarraituan artzeagaitik.

Kontuz, bada, irakurle, zeure agiñ-ortozkaz. Olo-saldia ta sagardo txurrutea era batera ez artu. Osterantzcan: agiñetan miñ eta boltzilloan... miñ eta erdi. Ezta oba!

4) Musikeagaz, dana obeto

Alantxe diñoe pruebea egin izan dabenak. Musikeagaz lana pozago eta obetoago egiten ei da.

Beiak eratzi be, askok musikea lagun eratziten dabez, eta balde eta ontziok esnez igerri barik bete.

Oraintsu baten Japoi'ko granjeru bateri txarrieri be, musikea lagun, jaten emon bear eutsela otu yakon. Eta ete dan gero musikea txarri-loditzalle! Azken sei illabeteetan, txarriok euneko berrogeitamar pisu irabazi ei entsen.

Eta guk, mutil, solomo-zaleak izanda, jakin ez orain arte aurrerapenok! Olakorik!



BAKE BILLA

Erri andictako agintariak ara ta ona diardue bake billa. Ez da erreza bake ori topautea. Bakea, ain zuzen, kalean edo aidean aurkitzeko gauzea ez dalako.

Gizonak barruan bake gogoa baiño, naaste ta asarre gogoa ez ete dauko sarriago? *Geu nagusi, edo ta bestela musturak ausi*, diño esacra batek, ta argi ta garbi esan be. Bakearen alde ete gabiltz, ala indartsuagoren alde joan ezkerro obeto biziko garealakoan? Indarra be gauza iragankorra da. Ezta beti bardin dagoana. Zuzentasuna, oster...

OBAKUNTZAK

Gure baserriko gorabecerak obatuteko sa-soia noiz izango ete dan galdetu deust leengo batean baserriar batek. Langilleak-eta ba cidabe batetik edo bestetik laguntasuna. Industria andiak be alkar ondo koipeztuten dakie guztien onerako —euren onerako esan gura dogu— izan daitezcan euren artuemon eta crabagiak.

Eta Euskalerriko basetxeak eta lurreko lanak zer aurrerakuntza egin dabē aspaldiko urte luzeetan? Beste paper baten ikusi doguz lantxu politik gure baserriarren alde egin leitekeana agertuaz. Komeni izango litzake gure ANAITASUNA onetan —zer orreek ondo dakizanen batek esanda— asmo on batzuck agertu, ikasi ta irakastea.

BIZIMODUA GORANTZA

Onek emoten deuskuz kontuak onek. Egunero jan bear, eta bear dana ta nai dana ezin errez topau. Okelea ezta egunero jan leitekeana, ez ona estalako, poltsak zimel

dabiltzalako baiño. Arraiña, ez merkea be-
raun, askok ikusi be ez dabe gura, batez
bere umcak. Umetar arrain zale ezta iñor
izaten. Azurrak, bizarrak, azalak... zeinbat
ganza iguingarri! Eta arrautzak nun dagoz
eta zenbatean? Oilloarenak ezezik paitea-
renak-bere jango leukeez erri andictakoak.
Bai orixe. Jantzi? A ori bai. Ori edonok
egiten dan gaur egunean. Dotore, txairo ta
apain gero! Jan? Gaur baru, biar erdi ase.
Txarri bodatzuren bat izango bagendu ama-
bostean bein edo... Ez giñakez txarto ibiliko,
urdaillak eta gibelak zintzo erantzuten daben
bitartean.

ERKIAGA E.

KRISTIÑAU DOTRIÑA BARRIA

Bilboko Obispo Jauna bete betean dago euske-
rearen alde. Espaiña guztirako egin dan Kristi-
ña Dotriña barria Euskaltzaindiari emon de-
tso euskeraz ipinteko, eta argitaratu da. Orain
ez dauko iñok atxakiarik lo egoteko.

JARRAITU IKASBIDEA

Astrabadua-n euskalzale talde eder batek, eus-
kal kanta zaarren, esuskerea astertuten daragoio.
Geroago teatru talde bat egiteko asmoa dago, an-
go euskeraren susterrak barriro be lorea emon
daien. Erri guztietan egin bear litzake au erria
alkartuteko, tabernetako aizeak apurtxu bat ba-
retu daitezcan. Ez diñot ardaoq edatea txarto da-
goenik, baiña apurtxu bat gitxiago edanda be ez
litzake kalterik etorriko.

EUSKALTZAINDIAREN EUSKERAZKO KLA- SEAK

Bilbon, Euskaltzaindiak dituen klaseak ikaslez
beterik dagoz. Illabete batzuk pasa dira klaseak
asi zireala, eta ikastaro onetan argi argi ikusten
da euskalzaletasuna baztarretan egunetik egune-
ra sendotzen doala.

IZTUN



V A L E N T I N B E R R I O - O T X O A D O A T S U A R E N K A R T A K

III

Bizi bedi Jesus!

Logroñon, martiyen ogeitairu-
garrenian, milla zortzireun da
berrogetamabigarren urtian.

Amatxo:

Niri deustan amoriyuak burutik erain
deutso? Ortik urten nebanian emon eus-
tazen bizkotxuak birian galduta, merezi
neban ez geiyago bialtzia (1); orregaitik
ikaratuta gelditu nintzan, lengo egunian
Esteban errotariyen semiak sei bizkotxu
ekarri eustazengan. Sei onetatik bi nere
lagun maite Merinori erregalau neutsa-
zen, bat Erretore Jaunari, beste bat In-
fante Jaunari, bat beste katedratiko bati,
eta beste bat gelditu neban neugaz. Es-
kerrik asko, ama.

Azkenengo kartia eskribituta laster
artu nituan zortzireun errial Landako se-
mien eskuetatik; egon bada ardura barik.

Osabiari esan beiyo, maiyatzeko lore-
tan elorriyorrarri sermoe bat egin bear
deutsela ondasunen zaletasunen gainian,
bada bizkaitarra diruaren gosiak ezteutse
ixten gizentzen ariman Jaungoikuaren
aurrian; da au ezto dala esaten txantxetan.

Asko da, ama, gaurko; aitari eskiñi
beiyoz semiaren biotzeko afektuak; da
kumplietan dabela osabiagaz, arrebiagaz,
mutillakaz, izeko Susanagaz ta beste gura
dituzan guztiakaz.

Jakin bei ba-daukala Logroñoko semi-
nariyuan seme bat, mundu onetan desio
deutsana graziya ugari, da zeruan gloriya
bere amari.

Valentin de Berrio-Otxoa deitxo berari.

Ah mutillen sentimentua! (*dirá aquí mi
madre*). Arrazoia dauko, amatxo, sentimen-
tuak bizkotxuak ekarriko baleustaz; baiña
zein negar egin, zein barre egin, bizkotxu
barik dago Valentin. Gauza bat^o galtzia
pena emon biar deusku, eta gauza au zein
da? zein? da Jaungoikuaren graziya, eta
bakarrik Jaungoikuaren graziya, zergaitik
au galduaz, guztiak galtzen dira, eta au
daukanari ezer etxako falta.

O graziya, graziya!

Zure preziyua guztiz da andiña,

Jaungoikuaren Semiak guretzat irabaziya.

Gure amarez igaruaz eriotzako larriya,

Zugaz mundutik doianentzat da zeruko gloriya;

Aintxe ikusi nai nuke nik nere ama Mariya.

(1) Bizkotxuak galdu zituanean, erderazko karta baten
nkabuan auxe eskribidu eutson bere amari: